

Identitateak

LUTXO EGIA / ANIE ZABALA / AUTOR GARCÍA DE VICUÑA (GARTXITO) / GALDER PEREZ





Lutxo Egiaren Identitarteak testu sarituaren eszenaratzea da Gilkitxaroren proposamen hau. Bogan dagoen gaia ardatz du: identitate ezberdinen eraikitzea eta deseraikitzea, norberaren identitatea eta identitate kolektiboa, aberri edota nazio identitateak, genero eta sexu identitateak, marka zein arropa identitateak.

Horretarako lehia komiko bezain absurdoa planteatzen da eszenatokian; Finn eta Seric protagonistak haien identitateez beste egitera jolastuko dira. Garçon dute epaile, ezustekoz beteriko pertsonaia iluna bezain alaia. Komedia hau Estatu Batuetako estadio erraldoi batean du abiapuntua. Gero sekulako bidaia egingo dute ikusleek eta pertsonaiek identitateen bilaketa ete suntsiketan: desertura, mendi gailurrera, itsasora, etxeko egongelara, kobazuloetara, upategietara, musikafestibaletara, antzezten ari den antzokira eta buelta berriz ere estadio erraldoi batera.

Identitarteak antzezlanaren testu lana da, komediatik eta absurdotik asko du. Elkarrizketa azkar eta motzek osatzen dituzte elkarrizketak, hizkuntza aberatsa eta hitz jokoz betea, euskal kulturaren totemak suntsituz eta berreraikiz.

Identitarteak ere soinu lana da, musika, zarata eta ahotsen esperimentazio bidez sortutakolan berritzailea. Eszenatokian sortzen da musika analogikoa zein elektronikoa, aktoreen ahotsarekin zuzenean jolastu eta performatzen da. Argiek eta proiektzioek babesa eta forma ematen diote lan eszeniko biribil honi.



Iutxo egia

Hainbat eleberri, narrazio-bilduma,
kronika, saiakera, zine-gidoi eta
antzerki-testu sortu ditu.

Azken urteotan identitatei buruz jardun
du artistikoki. "Transitoak: Bi-lingual"
performancea burutu zuen, hizkuntz
identitateen inguruan. "Identitarteak"
antzezlanak idatzi eta "Transitoak:
Haren da nire. Noiz utzi zenion zeure
bizitza bizitzerari?" performancea jarri
zuen martxan.

Ahotseneako eta BIRA Kulturako kidea
da.



aitor garcía de vicuña (gartxito)

Musikari gasteiztarra.

Urteak atzera Montauk taldean ibili zen
eta egun Mice eta Pasadenataldeetako
musikaria da.

Azken hamarkadan Hala Bedi irratiko
'Hiru Kortxea' saioko kidea izan da.
"Identitarteak" lanarekin lehen aldiz
murgilduko da antzerki munduan.



ane zabala

Gabriel Aresti hil zen urtean jaiotako
Bilbotarra.

Kazetaritzan antzezteaz gain aktorea
ere bada. Gilkitxaro antzerki talde sortu
zuen 1993an.

Hainbat antzezlanetan parte hartu.
Besteak beste, "Honolulu leku bat", "8
begi", "Adarretatik zintzilik", "Mirande
Kabareta", "MorbusOperandi", "ETAren
agiri bulegoa".

Bera da Finn.



galder perez

Gabriel Aresti hil zen urtean jaiotako
Bilbotarra.

Kazetaritzan antzezteaz gain aktorea
ere bada. Gilkitxaro antzerki talde sortu
zuen 1993an.

Hainbat antzezlanetan parte hartu.
Besteak beste, "Honolulu leku bat", "8
begi", "Adarretatik zintzilik", "Mirande
Kabareta", "Morbus Operandi", "ETAren
agiri bulegoa".

Bera da Seric.



FITXA ARTISTIKOA

Testua: Lutxo Egia

Zuzendaritza: Gilkitxaro

Interpreteak: Ane Zabala, Galder Perez, Aitor Garcíade Vicuña (Gartxito)

Jantziteria eta elementu eszenografikoak: Ramona Bilbao Izaguirre

Soinu diseinua: Aitor García de Vicuña (Gartxito)

Argiztapena: Rubén Martínez Blanco

Kartela: Gontzal Gutierrez

Bideoak: @shaneholat

Off ahotsa: Ainhua Agirre

Laguntzaileak:

Garaion Sorgingunea, Mimosa Bulegoa, Lemoako Kotxepin, Zart Ingenio, Karmela Kontrakultur, La Fundación aretoa, Zinegoak, Cafe Bar Bilbao, Daniel F. Carrasco, Iñaki Ziarrusta, Olatz Gorrotxategi, Jon Koldo Vázquez



ANTZERKIA

‘Identitarteak’

Konpainia: Gilkitxaro. **Egilea:** Lutxo Egia. **Dramaturgia eta zuzendaritza:** Gilkitxaro. **Jantziak eta eszenografia:** Ramona Bilbao Izagirre. **Argiak:** Ruben Martinez Blanco. **Antzezleak:** Aitor Garcia de Bikuña, Galder Perez, Ane Zabala. **Lekua:** Lemoako Kotxepin kultur gunea. **Eguna:** Apirilak 21.

Agus Perez

«Hautsi da anphora» zioen Ruper Ordorikak disko mitiko hartan Bernardo Atxagaren hitzak musikatuz Pott banda desegin berritan. Eta gure iruditeriaren parte bihurtuden esamolde hori errepikatu da behin baino gehiagotan Lemoako Kotxepin kultur gunean estreinatu den Identitarteak proposamen eszenikoan.

Hautsi da anfora, beraz. Dena da gertagarri orduan. Bukatu dira segurtasunen garaiak, amaitu barne-bakea ematen ziguten finkotasunak. Fuera etiketa oro! Dagoenekoez dakigu zer garen, ez dakigu ezta ote garenere. «Gora Euskadi askatuta» aldarrikatzen genuen garai batean, baina gaur egun, aldean daukagun manifakidea zertan ari ote da pentsatzen? Euskal Autonomia Erkidego apolitiko-apokaliptikoan?, Nafarroa ere ote dauka zorte apur batez gogoan?, Iparraldea ere akaso?


Lutxo Egiaren testu batekin aurkeztu dira oraingo honetan Ane Zabala eta Galder Perez Gilkitxaro taldeko kideak, eta aurreko paragrafoan azaldutakoaz baino asko kontu gehiagoz jardun dute beren estiloko solasaldi ustez burugabe baina egiatan mamitsuen bidetik. Edo bideetatik esan beharko nuke? Zeren eta bikote eszeniko honengangehien estimatzen duguna da gai batetik besterasalto egiteko duten gaitasuna eta ekintza eszeniko batetik bestera naturaltasun osoz igarotzeko trebezia, betiere autoparodiaren parametroetan, betiere ikusleen konplizitatea aurretiaz irabazita, betiere euskal kulturari erreferentzia aberasgarriak eginez.

Esan bezala, oraingo honetan Lutxo Egiaren testu bat –Cafe Bar Bilbao saria eskuratu zuen 2016an– hartu dute oinarrian, baina egileak askatasun osoa eman dio bikoteari testua moldatzerakoan, eta aretora sartzean aitortu digunez, espero zuen estreinaldiak sorpresa asko ekarriko zizkiola. Taldearen zaleentzat ere izan da sorpresa hirugarren pertsonaia baten presentzia. Aitor Garcia de Bikuñak jokatu du rol enigmatiko hori, Jean Geneten Les bonnes-en (Neskameak) estiloan jantzita, noizean behin erantzun lakonikoak emanez protagonisten galderei eta, beste ezeren gaintetik, soinu-giro aparta sortuz bai gailu elektronikoekin bai ahoarekin eta beste tresna analogiko batzuekin.

Hautsi da anfora, beraz, dena dugu harea inguruan eta desertuko zeharkaldi betean gabiltza. Basamortua arinagoa izan bekigu horrelako proposamen landu, irudimentsu eta ausartekin!

KANTXA

Behar teknikoak



GUTXIENeko neurriak: 5 metro zabal, 4 metro sakon

SOINUA:

Antzokikoa: Antzokiko PA, 2 Monitore

Konpainiak mikroak eta abar; eszanotokitik exekutatzen da soinua

ARGIZTAPENA:

Antzokikoa: Antzokiko Argiak + Argi mahaia + Proiektorea

MUNTAIA: 4 ordu aurretik, 1 ostean

ALDAGELA: 3 lagunentzako



KONTRATAZIOA

t taula

Markel Ganboa: +34 611 124 244
markel@taula.eus